

Luis Mari Ralla - Bizarrain Euskara Elkartea

IV. BERTSO-PAPER LEHIAKETA

Ondorengo orri hauetan aurkituko duzun lana Altzako Bizarrain Euskara Elkarateak antolatutako IV. Bertso-paper lehiaketaren emaitza da. Bertan, sarrera gisa azaltzen diren zenbait iritzi, Lorea Agirrek, Jakin aldizkarian (183-184 zenbakian) idatzitako artikulutik hartuak dira.

Euskara eta kultura, gizateria osoaren ondarea da. Hala bada, euskara berezko lurraldean bizi garen guztion aukera eta erantzukizuna da ondare unibertsal horri eutsi eta hurrengo belaunaldiei ahalik eta bizien transmititzea.

Euskal Herrian aspaldikoa da hizkuntzen arteko ukipena. Euskara beti izan da eta aspaldi dira hemen gaztelania eta frantsesa ere. Oraintsu ingelesa bera ere berebiziko indarra ari da hartzen. Eta etorkin heldu berriekin batera, beste makina bat hizkuntza eta kultura heldu zaizkigu.

Joko-zelai horretan ez da neutroa zein hizkuntzatan jardun. Edozer egiten dugula, hizkuntza bat(zuk) ari garatzen, aupatzen eta, orobat, beste hizkuntza bat(zuk) albora uzten.

Kultura oro da, beraz ondare unibertsala eta kultura ororen bizipen estrategian datza ekosistemaren oreka linguistikoa.

Euskal kulturgintza da euskal identitatearen funtsezko osagaia, eta hizkuntza elikatzean, motibatzean eta gaurkotzean eragina duen jardun bide sinboliko eta funtzionala dute heldulekua zehaztu ditugun premisek; Euskal kulturgintzak, kultur sormen eta kontsumotik haratago badu eragin sakonago bat; alegia, euskal nortasuna elikagaia izatea, izateko arrazoiak eta sinboloak elikatzea.

Funtsean eremu soziokulturala ardatza hartuta, antolakuntza sektorialak osatzea eta elkarlana bultzatzea lortu behar da. Kulturak duen funtzio linguistikoa balioan jartzea eta kultur eragile zein jendardean sozializatzea da hartu beharreko neurrien artean.

Euskara erdigunean jartzen duen ezein diziplinak euskararen eta euskal kulturaren eragile eta sustatzaile izan behar du.

Kultur produkzioa kultur kontsumitzaile eta zaleen eremu fisikora hurbiltzea giltzarri da. Zaletasunetik eta gozamenetik abiatu badira ere, ona litzateke euren taldetasun txikian, euren lokaltasun, kultura oso baten parte aktibo direla senti dezaten.

Guzti hau esan ondoren, bidera gaitezen aurten gauzatutako IV. Bertso-paperaren emaitzak zerrendatzera.

Denera, hamahiru lan aurkeztu dira, hiru Altzakoak eta gainontzekoak inguruko herrietakoak.

Kontuan hartuta zenbait ezaugarrien artean lan hauek azpimarratuko genituzke sailkatzeko orduan: neurri estua, ezagutza teknikoa, errima oparoa eta irudimen aberatsa izatea.

Eta sarreratxo hau, nolabait amaitzeko, eskerrak emateaz gain aipatu gabe ezin utzi epai-mahaikide izan ditugun Galantene baserriko Joseba eta Arantxa Alkiza anai-arrebak beraien lana hain txukun eta txintxo betetzeagatik.

Besterik gabe hona hemen sailkapena eta bakoitzari dagokion lana eta doinua:

1. “Ama izan nahi dut”

Egilea: Amaia Agirre (Billabona)
Doinua: “Naufragoarena”

“Garberatik Garberara”

Egilea: Iñigo Legorburu (Errenteria-Orereta)
Doinua: “ETA-ren su etenetik..”

“Beste harreman hautsi bat”

Egilea: Ander Lizarralde (Oiartzun)
Doinua: “Lagundurikan denoi”

“Amona eta biloba tertulian”

Egilea: Amaia Agirre (Billabona)
Doinua: “Aizak hi mutil mainontzi”

“Katuak egin dit ihes”

Egilea: Jon Martin (Oiartzun)
Doinua: “Partida tristea Ternuarat”

“Aitonaren lan berria”

Egilea: Amaia Agirre (Billabona)
Doinua: “Betroiarena”

“Neska bat maite dut eta zer?”

Egilea: Amaia Agirre (Billabona)
Doinua: “Naufragoarena”

“Txirrita-Koldo”

Egilea: Adolfo Bornaetxea
Doinua: “Nagusi Jauna hauxe da lana”

“Gero arte ama”

Egilea: Amaia Agirre (Billabona)
Doinua: “Naufragoarena”

“Bertso berriak Donostiyaren suntsiketari jarriyak”

Egilea: Tomas Arzubialde Elizegi
Doinua: “Buenos días, txanbergo jauna”

Eta Altzako egileei dagokionez
honako hau da sailkapena:

1. “Herri mina”

Egilea: Unai Elizasu
Doinua: “Haizea dator Iparraldetik”

“Amamari bihotz minez”

Egilea: Iban Orbegozo
Doinua: “Maitasuna da bizi izateko”

“Liburu asko erosten ditut”

Egilea: Xanti Zapirain
Doinua: “Norteko trenbideari”

AMA IZAN NAHI DUT

Egilea: Amaia Agirre

Doinua: Itsaso hori dago zatarra /
Naufragoarena

1

Haur baten miran ia bost urte
dena abortu ta odoluste
betegaitz diren amets antzuen
morroi bihurtu gaituzte (bis)
alferrik mila jardute
sabel bete baten truke;
Erreza denik ez uste:
zenbat intziri ta negar malko...
Zenbat min eta lanuzte...
Bizi berri bat erditzearren
bizitza emango nuke.(bis)

2

Bizitzak zentzu oro galdu du
ez dut ez amets ta ez helburu
ama izateko gai ote naizen
jada ez nago seguru (bis)
Jonek ta nik buruz buru
hiru haur galdu ditugu
heriok maite gaitu gu.
“Guri zergatik?” galdetu arren
ehun mila bider inguru
nahi dugunaren ta garenaren
artean bizi behar dugu. (bis)

3

Eramangaitza zait egoera
lurraren pare egoa bera
indarge baina gauzatu dugu
azkeneko saiakera (bis)
sabela berriz bete da!
gaurtik sei hilabetera
ttiki, osorik atera
gau tximeletak bonbilarekin
itsutzen diren antzera
zu ere nire itsumenaren
arrazoi bihurtu zera. (bis)

4

Baina urriaren bederatzian
ohikoa nuen esperientzian
berriz odola zen bidelagun
senarraren presentzian (bis)
medikuen iritzian
berriro modu bitxian...

Derrigor behar etsi han
ia buruaz beste egin nuen
lur jota inpotenzian...
Nire esentziak ez du zentzurik
ttiki zure ausentzian. (bis)

5

Bizi galtzea gure desditxa
gu ere ezin bizi gabiltza
aski sendoa ez omen nire
umetokiaren mintza (bis)
patu zikoitz ta bortitza
ote guztiaren giltza...
Gurekin zertan zabilta?
Bata bestea bezain tristea
dela ematen dut hitza
izar gabeko gau iluna ta
amets gabeko bizitza. (bis)

6

Aski zelako bizi irauten
ta ezinezko ametsei eusten
gure gogoek adopziora
bultza arazi gintuzten (bis)
Indian izanak aurten
jaio berriak ikusten
ze nola uzten dituzten!!
Nahiz hondarrezko kontzientzia ta
harrizko bihotza duten
guraso hoiek trukean zeinen
zorionsu egin nauten! (bis)

7

Jon eta biok bide luzean
oinaze oro utziz atzean
lehen ez bezala bizi gogo
sentitzen dugu goizean (bis)
bi bihotzen babesean
joanari ihesean
saiatu ginen aise han:
mundu honetan maiz hondarrezko
ordularien antzean
bizitza ere geldi daiteke
garaiz buelta eman ezean. (bis)

8

Haur bat jomuga, barrua antzu
gogoak egin gaitu ahaltsu
ordu luzetan hegazkinean
itxaropenez indartsu (bis)
Mared, argazkian, aizu
begi ederrak dauzkazu
zure amagaia nauzu
lehenik Delhi, ondoren Patna
ta zugana pausuz pausu
Indian dena aurkitu nahi dut
nire burua eta zu. (bis)

9

“Zuk nahi duzuna kapritxo da
eta nirea beharra, hara!”
esango balit legez so daukat
haurtxoa begietara (bis)
Biak bertatik bertara...
Nostaljikoen gisara...
Segunduko ehun taupada...
Bihotz barrura heldu berri zait
Mared zure begirada;
zuk nahi baduzu laister ama ta
alaba izango gara. (bis)

10

Akabo minak, akabo drama
ai zeinen ume on ta otzana
eguzki printzek argitu dute
itzalpeko iragana (bis)
zatoz, Mared, guregana
eta tori muxu bana
niretzat dena zerana!
Hiru bihotz ta familia bat
hau da poza daukadana!
aita ta amen besoetara
ongi-etorri laztana! (bis)

GARBERATIK GARBERARA

Egilea: Iñigo Legorburu

Doinua: ETA-ren su etenetik...

(Xabier Silveira)

1

Garbera deitzen didate
ta izenaren harira
ni baserria naizela
aitortu nahi nuke di-da!
Baina niregandik gertu,
joan gabe urrutira
izen bereko merkatu
erraldoi bat ageri da.
Harengandik bereiztea
da nire gaurko desira
hortaz, lehenengo alde
atsotitz baten neurriara:
Izen bakarrean izan
ezberdinak sartzen dira. (bis)

2

Eraiki nindutenean,
eskuz esku, harriz harri;
familikoek babesa
eman zioten elkarri.
Elkarbizitza zen haien
eguneroko pizgarri,
senideek maitasuna
izaten zuten oinarri.
Merkatalguneak ezin
du ezer onik ekarri:
nahizta milaka pertsona
elkarren ondoan jarri
jende artean bakarrik
sentitzen baitira sarri. (bis)

3

Nire zelai berdeetan
artalde asko, lehenago
gustura ibilia da
belarra janez oparo.
Lasaitasun ederrean
bizi ohi ziren, zeharo
ez ziren beldurtzen nahizta
jendea gertu igaro.
Merkatalgunean inor
ez da sentitzen arraro
kexatu gabe han preso
egon litezke luzaro
bi hankeko artaldean
ardi beltzik ez baitago. (bis)

4

Gauza txar asko ikusi
ditut bizitzan barrena:
Aurrena gaixotasunak,
epidemiak hurrena.
Baztanga zen, adibidez,
naturaren ekarpena
orain hori goitik behera
aldatua zaigu dena.
Gaur, merkatuak zabaltzen
du birusik larriena
sendatuko ote garen
urrun dut itxaropena
kontsumismoa delako
izurriterik latzena. (bis)

5

Nire baitan hazi dira
hamaikatxo bertsolari
nire hormak izan dira
hitz neurtuaren kabi.
Amonak aritzen ziren
ipuinak kontu-kontari
ta haurrak egoten ziren
istorio haiei adi.
Beste Garberan orde
bada zenbaki ugari
deskontu ta ofertekin
ibili behar da argi!!
Han, zenbakiak lekua
jan baitiote hitzari. (bis)

6

Aspaldi, ama naturak
eman ohi zidan babesa:
soroa edo mendia...
ahazten ez dago erreza.
“Progresoa” da oraingo
politikoen promesa
ta batzuk irentsi dute
horren gezur aldrebesa.
Errepidez inguratu
naute ni, a ze sorpresa!!
Bidean hor ditugu zain
kutsadura ta stressa...
Norabiderik txarrena
dugulako noraeza. (bis)

7

Nire porru ta letxugek
duten zapore mundiala
aitortu izan didate
eskertu nahian bezala.
Supermerkatuan berriz,
barazkiak hartu ahala
BIO ta EKO hitzekin
nahasten dira maiz, aibala!
Belaunaldi berrietan
tristeza da martingala
zaborra jatera guztiz
ohitu dira berehala
artifiziala delako
haientzako naturala. (bis)

8

Familia onenetan
gertatu ohi den gisara
nahizta elkar gorrotatu,
biok senideak gara.
Merkatalguneak ta nik,
hemen bertatik bertara
bi munduren kontrastea
ekarri dugu Altzara...
Bertso hauekin sentitu
baduzu barne-zirrara
sentipenak bizitzea
zure aukera da, hara:
Bizitza aldatzen baita
Garberatik Garberara. (bis)

BESTE HARREMAN HAUTSI BAT

Egilea: Ander Lizarralde

Doinua: Lagundurikan danoi

1
Bizitza osatzen da
banaketa garaiz.
Minez bete ohi naute
ta hustu esanahiz,
berandu etorri ta
ez baitoaz garaiz.
Nahiz lehendik bide hau
zapaldu dudan maiz,
beti bide gurutze
hontan gelditzen naiz.

2
Haseran ez eskatu
konprometitzetik
nahiz gero ez den beste
bide bat hartzerik,
ta ez uste ni bertan
hain erraz sartzerik.
Izu bakarra baitut
eta ez besterik:
edukiko ez duen
atzerabiderik.

3
Hau agintzen dit nire
arrazoi puruak:
“hik aitatasunean
jarri helburuak
eta gehio ez itzak
nahastu inguruak”
Izanagatik nire
barneko guduak,
bihotza konbentzitzen
zaila du buruak.

4
-Maitatua sentitu
izan naiz benetan,
bizitzak jarritako
aukera denetan,
halare hartzen ez dut
jakin gehienetan.
Maitasunak lekurik
ez baitauka bertan,
beldurrak agintzen dun
inguruneetan.

5
Lehengo sugarrik ezin
dizut erakutsi
ta jada ez dizut nahi
soinekorik hautsi,
izua ezin baitut
muxu batez suntsi.
Harreman baten sua
asko edo gutxi,
kariñoak bakarrik
ez dezake eutsi.

6
Inork beharko balu
badaukat laztana,
munduko emakume
guztientzat bana,
hau da nik eskaintzeko
dudan harremana.
Nire bizitzan hau dut
ezin eramana:
beste inor maitatu
ezinaren zama.

7
Bizitza honek ditu
horrenbeste aro,
askoz hobe direnak
bakarrik igaro.
Ez zuregan bilatu,
“gaitza” nigan dago,
inork nola aseko
nau ni ba zeharo,
nire buruarekin
ondo ez banago!

8
Nola beldur zaharrak
gutxika datozten,
su motelean darrarit
bizitza egosten.
Ez baldin badit behintzat
inork eragozten,
hemen segituko dut
tristeziak pozten
garai bateko suen
epelekin hozten.

AMONA ETA BILOBA TERTULIAN

Egilea: Amaia Agirre

Doinua: Aizak hi mutil mainontzi

1

Amona eta Amaia
zeinen bikote alaia
bat bestearen magal beroan,
hasi da soslaia
galdekatzeko garaia
nexuskagana heldu da ia
osagai dira jakinduria
eta jakin nahia.

2

Amona haserre nator
ikastolatik egoskor
Zer gertatu da gure etxeko
bizipoz ta altxor?
haserretu zaizkit Aitor,
Libe, Maddi eta Igor.
Jadanik ez dut lagunik eta
ez dut maite inor.

3

Ez zaitez nigarrez jardun
laguntasuna demagun
lore bat dela ta urez ezin
da utzi alargun
lagun bat dena da, kuttun
dena babes ta maitasun
baina lehenengo zuk izan behar
duzu euren lagun.

4

Jolasten genbiltzan lasai
denok umorez ta alai
nahigabe hautsi diet jolasa...
Baina ez nuen nahi!
Bazara konpontzeko gai
zoaz ta ez geratu zai:
sendia ezin duzu hautatu
baina lagunak bai.

5

Belztu didate kopeta
birao eta iseka
“alde hemendik” esan ta
denek
eman dute buelta
nahiz harrapatu kasketa,
joan berriz euren xerka
lagunek zure akats ta guzti
maite zaituzte-ta.

6

Ez duzu ulertzen batè
etsai modura naukate
jada lagunik ez dut izango
gabonetara arte
nahiz ta sentitu aparte
itzuliko dira, maite
beraien bihotz zati txiki bat
zuga baitaukate.

7

Horrela balitz, ojala!
Baina hori ez da hala!
Lasai laztana, xuka malkoak
ta goza magala
baina jakin berehala
laguna hurbiltzen dala
zaurietara odol beroa
datorren bezala.

8

Urduri nago hala're
barrua ez daukat bare
haserraldiak astintzen baitu
norbere goi ta behe
egin esaldi_honen jabe
eta bihurtu zutabe:
lagun berriak egin itzazu
zaharrak galdu gabe.

9

Ai, ai amona kuttuna
zurea bai ondasuna!
Beti laztan bat opari eta
aholku txukuna
niganako maitasuna
da erakusten duzuna
zu zara inoiz hutsik egingo
ez didan laguna.

10

Bota didazu galanta!
Sentitzen dudana da-ta!
nik asko maite zaitut
Amaia,
gehiago ezin maita!
nahiz eta heldu enbata
hitzok gogoan aguantan
ni falta arren aholku onik
ez dakizun falta.

KATUAK EGIN DIT IHES

Egilea: Jon Martin

Doinua: Partida tristea Ternuarat

1

Nora alde egin ote du?
Non dago nire katua?
Zabalik utziko nuen
leiho madarikatua...
Ta ezin bakean utzi
askatasun karratua...
Ihes egiteko nahia
hain du zainetan sartua!
-Esaten nizun bezala,
naiz gazterik zahartua
gaur gaztetu nauzun arren
nire barruan sartua.
Garai zaharrak gogoratu
ta zuri besarkatua,
kontatu nahi dizut nire
bizitzaren bekatua.

2

Aita gizon zintzoa zen,
langilea ta noblea,
gibeleko gaitzen batek
ostu zion kolorea.
Amak jokoan galdu ohi
zuen diru uholdea
jan zituen aurrezkiak,
ta sendiaren ohorea.
Ezin nezakenez jasan
amaren jokamoldea
ihes egiteko bildu
nuen nire adorea.
Gelako leiho txikia,
estua, erdi-gordea...
Nire ametsak bertatik
kabitzen ziren ordea.

3

Nire amak indar osoz
gorroto zuen mutila
besarkatzea ez al zen
mendeku-plan borobila?
Gau batean ilargia
sekula ez bezain hila
zegoela baliatuz
joan nintzen bere bila.
“Maite zaitut”, esan zidan
eta beste gezur pila
gero larrua jo zidan,

horretan hain zen abila...
Sumatu zuenerako
nire hasperen isila
proposatu zidan gaua
betiko izan zedila.

4

Modu hortako mutila
nuen ondo merezia:
mutil ona, diruduna,
geroduna... polizia.
Ezkonduta aurretik dena
perfektua, poesia;
baina igitai bat bezala
itxi zen parentesia.
Nik, maitemindurik,itsu
eskaini nion bizia;
hark hitzez hitz ulertzeko
izan nuen desgrazia.
Asko maite ninduela
nahiz sinetsi berez ia;
frogatzeko izan zuen
oso modu berezia.

5

Sei hilabetetik behingo
kolpe batzuk gora-behera
amak egin zuen gisan
jarraitu nuen aurrera,
baina ondoren “laztanek”
egin zuten okerrera
ta amiltzen hasi nintzen
eskaileraz eskailera.
Ez nuenez maite bere
laztan egiteko era
gau batez hurbildu nintzen
gure etxeko atera
etsipenez betetako
bi maletekin batera
negarrez itzuli nintzen
berriz amaren etxera.

6

Atea ireki zidan,
ez zuen zer esan jakin;
gero, xuxurlatu zidan
“ez zazu negarrik egin”.

Paparra blai utzi nion
nitaz kupidatu zedin,
baina berak “esan nizun”
esan zidan begiekin.
Nik, etsita, hark bizitzen
uzten bazidan berekin
inoiz ere ez nuela
utziko egin nion zin.
Geroztik garai txarretan
ta txarragoetan berdin
Heriok banatu arte
segi dugu elkarrekin.

7

Batzutan gozatzen nuen
nire amari zerbitzen
sukaldean hain luze ez
nintzen alferrik ibiltzen.
Maite zuen sagar-tarta
eta maiz ibiltzen nintzen
etxeko sagarrondoko
alerik onenak biltzen.
Gau batez sirena hotsak
ta DYAKoak hurbiltzen...
“Bihotzeko bat izan du”,
kosta zitzaidan aditzen.
Ez dute inoiz jakingo,
baina pozoindurik hil zen.
Hirurogei urterekin
berriz hasi naiz bizitzen.

8

Bizikide izan ditut
Luzifer eta Bertzebu
hegalak galdu nituen,
jada ez nintzen aingeru.
Geroztik zu zaitut nire
ihesbide ta sosegu
(limoizko eguzki bero
eta izotzeko negu).
baina inori ez esan,
egiten dizut erregu.
Tragotik biluztu zaitut.
Zerua berriz da zeru.
Ni ta nire historia
berriz bakarrik gaude gu
Non dago nire katua?
Nora alde egin ote du?

AITONAREN LAN BERRIA

Egilea: Amaia Agirre

Doinua: Betroiarena

1

Uste nuen gogorra
zela erretreta
behin hirurogeita bost
urte beteta
baina bizitzak eman
dizkit mila buelta;
zorionez ez nago
zer suma, zer gerta
hau ez da errenta
goizero lasterka
astiaren xerka
nonahi da alerta
seme_alabek lanean
jarri naute-ta.

2

Aitona egin naute
ta orain akabo
lerde jario nabil
haurren esklabo.
Nahiz ta sentitzen naizen
gustura zeharo
lasaitasun ederra
genuen lehenago
txikien abaro
izan nahi luzaro
baina ziur nago
heltzeko harago
iragana berritu
beharra dago.

3

Muxu batez agurtu
eskola sarreran
eta beste batekin
jaso irteeran
pentsakor jolas berri
bat sor dezakedan
eseri ta askaldu
parkeko eskaileran
nahiz jartzen diedan
guztia aukeran
erregeen eran;
bizi naiz primeran
nireei ezin izan
bainien eman.

4

Jarri naiz bizitzaren
eskaparatean
biloba txikiena
beso artean
irribarre egin dit
muxu ematean
azken katebegia
da gure katean
sartu naiz parkean
ta juxtu atean
Jon pake-pakean
lokartu artean
memoria itzartu
zait bat-batean.

5

Mila beatziehun ta
laroigeita bira
joan ta zer iltzatu
zait memorira?
Bikoteari eman
asmotan segida
ume bat ekartzea
zen gure desira
orduko mugida
atzera begira
zer nola deskriba
daitekeen argi da
gure lehen semearen
munduko jira.

6

Hogeita hiru urte
konplitu berritan
lantokitik atera
ta izerditan
hospitalera joan
ginen irrikitan
gu ez baina semea
zetorren bisitan
geroztik sarritan
gabiltz ika-mikan
andrea erritan
hirutatik bitan
hala ere gehienak
nire inbiditan.

7

Seme zoragarria
jaio zen mundura
lehenago amets egin
nuen modura
baina ez zen samurra
izan abentura
atzetik baitakarki
betiko lotura
goizero logura
eta arregura;
nahiz pasa faktura
ez dio ardura
ez dut inoiz ahaztuko
goiz eder hura.

8

Ze mudantza zetorren
banekien aurrez
baina egokitzen ez
zegoen errez
nahiz ta laztantzen nuen
nik esku ahurrez
nonbait oraindik gutxi
genekien haurrez
hasteen nigarrez
emazteak parrez
hartzen zuen artez
eta nik ezer ez
estutu ta itoko
nuen beldurrez.

9

Baina gainditu dugu
orduko ikara
ta berriz orainera
itzuli gara...
Bilobari luzatu
diot begirada
semearen kopia
hutsa ez al da ba?
bi seme-alaba
lau biloba jada
ta Jon, hemen hara
azken potxolada
jaso dudan opari
ederrena da.

10

Barrua bihurtu zait
sentipen almazen
emozioak gaina
hartuz hain zuzen
orduko ibilerak
gogor zihoazen
patrika sarri hutsik
ta agenda gizen
ta bilobak zaintzen
pozik hasi nintzen
painalak aldatzen
lan hoberik ba al zen?
eurak nigatik harro
senti daitezen.

11

Andrea galdu nuen
ta hurrenez hurren
begiratu bizitzak
ze poz zekarren:
lehen bilobatxoa
jaio zen pozarren
ta orain laugarren hau
dut pozaren barren
txikia den arren
ze indar dakarren!
Mila esker horren
errez eta garden
negua udaberri
bihurtzarren.

12

Besarkaden babes ta
laztanen beroa
bilobekin gorpuztuz
doa egoa
bizipozen oinarri
zen lehenengoa
enbor baten ezpala
da bigarrenkoa
lauko saltseroa
ta zalameróa
hau da generoa
ziur da geroa
esku onetan daukat
erreleboa.

NESKA BAT MAITE DUT, ETA ZER?

Egilea: Amaia Agirre

Doinua: Naufragoarena

Zer da egia? Ta zer gezurra?
Zer fikzioa? Zer iruzurra?
Zer da “esan nahi ta ezin esan”
sortzen den barne beldurra? (bis)
Zer da etxeko ikurra
izatearen gailurra
jausi ondorengo lurra?
Egiari zor biluztu nahi dut
nahiz eta ez den samurra
hau da alaba baten larrutik
aska nezakeen apurra.

Nola askatu minen katea?
Nik nori egin diot kaltea?
Barrua ozpintzen mila galdera
ari zaizkit jo ta kea (bis)
gogorra da esatea
ta gehiago jasatea
aitaren errematea:
“zu bipolarra eta gaixoa
zara alaba maitea!”
Delitu al da nerabea ta
lesbiana izatea? (bis)

Irriak urri ta bihotz mintza
zauritu nahian asko dabilta
ni gutxietsiz zenbat birao
zenbat baztertze ekintza (bis)
mundu kolore anitza
lortzea bada baldintza
erabat oker gabiltza;
“ez dut bizi nahi” esateraino
bihurritzen nuen hitza
itxi gabeko parentesi bat
zelako nire bizitza. (bis)

Nahiz eta izan neska izena
nahiz neska bat den ni neu naizena
mutilak soilik maita beharrak
nahasten zidan barrera (bis)
neskak gustatzearena
ote zen nire krimena?
Zergatik jaso kondena?
nik nahi bezala ez zetozen bat:
(eta horixe zen pena)
ustez sentitu behar zena ta
egiz sentitzen nuena. (bis)

Behin hamazazpi urte beteta
pausoa eman ta ahopeka
nire lagunmin nuen neskari
irauli nion oreka (bis)
bere bi ezpainen xerka
hurbildu nintzen zer gerta
ta ez zuen eman buelta;
hura izan zen nire beldur ta
konplexu denen leherketa
gorde nahi nuen sentimentua
agerikoa zen eta. (bis)

Lehenengo muxu haren lurruna
bilakatu zen poz erresuma
begiak itxi eta geratu
nintzen zer gerta, zer suma; (bis)
ordurarteko laguna
bilakatu zen kuttuna
eta jaio maitasuna
pozezko hitzek askatu zuten
neraman kate astuna;
kanon-etara ez da lerratzen
nire zoriontasuna. (bis)

Pausua eman nuen suabe
ta ezetzik ez zen parez pare
barne ekaitza kontra zetorren
baina olatua alde (bis)
nahiz ta sentitu ahalge
astindu ondoren goi ta behe...
Banaiz egiaren jabe
etxeko lanak ta etxerako
lanak nituen hala're
besteei nola ulertarazi
norberak sinistu gabe? (bis)

Gogoan ama, aita bezela
bi eredu ta bi erregela
badakit honen digestioa
zaila egingo zaiela (bis)
gaurtik jakin dezatela
sexu bereko bi perla
distiragarri garela
nahiz dirudien deshonra edo
ohore galtze bat dela
jakin bezate lehen ez bezala
zorionsua naizela. (bis)

Begi aurrea gaitzen arrago
bihurtzen zait nahi baino
maizago
eskutik edo gerritik estu
heldu ezker akabo! (bis)
Zehar begira luzaro
egoten denik badago
baina ni seguru nago
noizbait lortuko dugula gure
sexu joeraz harago
gugan bi bihotz ikus ditzaten
bi alu baino lehenago. (bis)

TXIRRITA-KOLDO

Egilea: Adolfo Bornaetxea
Doinua: Nagusi jauna, hauxen
da lana. (Bilintxen Joana Bixenta
Olabe)

TXIRRITA

Donosti dena ez da berdina
Altza badugu guztien erpina
KOLDO

Hori esaten duzu zuk oso erraz
baina adituko duzu garratz:
entzun nazazu!
ni naizela bertsoetan maisu
zu zaharra eta gainera itsu!

TXIRRITA

Handia bainaiz, goitik begira
ikusteko naiz gauza sikiera.
Zuk goitik begiratzea latza,
utz nazazu hartzen orain hatsa,
zeren bertsotan,
abilki nabil ni handienetan
baina baita ere bertso txikitan

KOLDO

Txikia izanik, ez naiz hanpatu,
Altzaz mintzaten ez naiz ni tronpatu.
Altza ez baita inoiz ere Donosti
altzak ez baitu ematen gorosti.
Poetak daki,
bertso denak ez direla ederki,
errazkeria zer den baheki...

TXIRRITA

Mutiko ausarta, ematen lata
bertsotan emango diat errenta
Altzako Gazteluenekoak
erakusteko hemengo gakoak:
Hi kalekume!,
utzi kegak eta habil xume
euskal poetak dizkiat nik seme!

KOLDO

Zure euskara, zure bertsoa
niretzat ez du balio osoa.
Latze baserria bota zuten
Altza herria desegin hemen.
Iragana da
askotan ohiko gure aldarria
baina behar dugu Altza berria.

GERO ARTE, AMA

Egilea: Amaia Agirre

Doinua: Naufragoarena /

Itsaso hori dago zatarra

1

Bizi luzea bizi xedea
goiz joan zara ama ordea
sahiets ezina baita heriok
gugan duen boterea. (berriz)
Maiz “bakoitzari berea”
zen zure esapidea
hau ez da adibidea.
Udazkenean orbela eta
zahartzean ahuldadea
baina zu gazte eraman zaitu
hori da bizilegea. (berriz)

2

Ama maitea, bat ta bakarra
mantaldun andre baserritarra
baserriaren zutabe eta
seme-alaben iparra (berriz)
artajorran tirri-tarra
haren sasoi ta indarra
etxeke andre suharra!
Nahi eta ezin, ezin eta nahi
ez ote da zoritxarra
nahi dugunaren ta garenaren
artean bizi beharra. (berriz)

3

Ohe biguna ametsen talai
ate atzeko itzalei ernai
seme-alaben nigar mingotsak
azkena noiz helduko zai. (berriz)
Minbizia zure itzai
bizimina minen sabai
gure muxuak bizigai...
Begiak itxiz hasperen egin
ta hil zinen lasai-lasai...
Bihotza ia gelditu arren
bizitzak aurrera darrai. (berriz)

4

Heriotzari zeinek aditu
alderdi onik ezin aurkitu
bere bidea egiten baitu
zirrikitzu zirrikitu (berriz)
nahita ere ezin gelditu
herio nork errenditu

ihesean ez abitu.

Nahiz maite dugun oro lapurtu
ohi digula iruditu
bihotzean ta oroimenean
betiko iltzatzen ditu. (berriz)

5

Morfina zure minen teilatu
leuzemiari nork gaina hartu?
Nire besoek nahiz eta zure
gorputz ahula inguratu (berriz)
nahiz ta gogor borrokatu
ezin bizitzaz gozatu
ezin egia bortxatu
sendi osoa elkartu gara
ezin malkorik xukatu
heriok batzuk urruntzen ditu
baina beste batzuk batu. (berriz)

6

Ile jausiak noiznahi almohadan
are gehiago azken boladan
mila sendagai ez doazenak
gaitz sarkorren abiadan (berriz)
tanatorioko gelan
erretzeko zain iladan
zeinen gogorra izan dan
lau haizetara zabaldu zara
atariko mendi maldan
haizeak berak hauta dezan noiz
ekarri ta noiz eraman. (berriz)

7

Liher eta ni zurrun atean
zu arnasadun zinen artean
eskutik heldu eta itzaltzen
hasi zinen bapatean (berriz)
amorruren katean
minen eskaparatean
zu eskutik joatean...
Lurra oinarri hartu atsedean
zoriontasun betean
umetan zuk zeuk landatutako
intxaurrendoaarenpean. (berriz)

8

Etxe aurrea lorez mukuru
mundua bitan, biok bi
mundu
errautsen kutxa azken
aldikotz
nigarrez laztandu dugu
(berriz)
ondotik ezin urrundu
saminik ezin leundu
azken agurra helburu...
Nahiz eta ama maitea hil zen
orain lau aste inguru
bizi zeneko oroitzapenak
biziarazten gaitu gu. (berriz)

9

Berrogei eta hamairu urte
bi gaitz gogorrek hautsi
zaituzte
zure medula mila globulu
zurik ito berri dute. (berriz)
Auzoan zenbat entzute
mila goresmenen truke
lagundu ahal balute...?
Hamasei urte baina aukera
banu besterik ez uste:
zure bizia berpiztarren
nirea emango nuke. (berriz)

BERTSO BERRIYAK
DONOSTIYAREN SUNTSIKETARI JARRIYAK

Egilea: Tomas Arzubialde Elizegi
Doinua: Buenos días, Txanbergo jauna

1
Milla, zortzireun da amairuko
abuztuaren illian,
donostiarroi ñoiz aztuko
etzaigun egun batian,
gerra txar batek arrapatu zun
erriya bete-betian:
dana txikitu arte pakerik
etzan izan gure etxian.

2
Garai ayetan Europa aldia
nagusi zan Bonaparte,
eta Donosti aldian ere
artu nai zun, nunbait, parte.
Bere armada zabaldu zuben
prantzes soldaduz bete arte,
baiñan prantzesen etsayak ere
etzebiltzan oso aparte.

3
Ingles, español ta portugesak
egin zuten alkar artu.
Prantzesen kontra ekin ziyoten,
nai baitzituzten bialdu.
Bi illabetez ainbat zituzten
Danostiyan setiatu.
Wellington eta beste batzuben
zuten burruka gidatu.

4
Gipuzkoarren jarrera, nunbait,
españolei ez gustatu:
prantzesarekin epelegiya,
ayek alaxe juzkatu,
eta guziyek biar zutela
nola edo ala pagatu.
Asteko, beintzat, probintzi dana
traidore deklaratu.

5
Abuztuaren ogeita amaikan
sartu ziraden barrena,
ta azkar asko garbitu ere
parian gertatzen zena.
Donostiarrak iltzeko eta
dana suntsitzeko urrena,

Castaños buru anker gaiztuak
ala eman zun ordena.

6
Emakumiak bortxatu eta
gizon asko torturatu
seireun etxe kixkali, eta
diru guziya arrapatu,
izurri latza zabaldu ger
ta amaikak biziya galdu:
ezeren kulparik ez gendunok
larrutik gendun ordaindu.

7
Berreun urte igaro dira,
eta ez gaude aztuta,
garai artako donostiarrak
ainbeste merezi du ta.
Batzuk, ordia, festa egiteko
dabiltz asmua artuta,
milla ta seireun eriyotz ayen
oroitzapena galduta.

8
Ordutik emen española zan
tamalez agintzen jarri,
eta arekin, jakiña dago,
egiya jakiten larri.
Orduko berri zabaldu nairik,
ona zortzi bertso berri,
donostiarron, gipuzkoarron
eta danon jakingarri.
esku onetan daukat
erreleboa.

HERRI MINA

Egilea: Unai Elizasu

Doinua: Haizea dator Iparraldetik

Gogoratzen dut aman agurra
malkoz bustia bisaia,
gogoratzen dut trenan atzetik
korrika gure anaia
bizi hobea bilatzea zen
neska eta bion nahia,
kontatuko dut iparralderantz
hasi genuen bidaia.

Kilometroak, egin ta egin
ez genekiela... nora!
Lan aukera bat jaso genuen
gure herritik kanpora,
den dena utzi eta hutsetik
abiatu ginen gora,
iparririk gabe iritsi ginen
norteko estaziora.

Esperantzaren usaia zuen
bertako porlan kiratsak,
udaberriaz jantzita zeuden
bertako etxe orratzak,
errepideek zauritu arren
zelaia eta baratzak,
beso zabalik egin gintuen
ongi etorria Altzak.

Harri zaharreko gune hartako
harri berrien artean
izen gabeko kale sarean
jolasik ez den parkean,
balkoi gabeko paretak eta
zenbaki hutsak atean,
lotako auzo bihurtu zuten
esna zen herri batean.

“Igande goizez mezetara joan!”
Gure amaren dotrina,
sartu orduko ohartu ginen
zeozer ez da berdina,
banku haietan nahasten baizen
fedea eta samina,
alde batetik gure herrimin
eta euren herri mina.
Nahiz ta gutarrak ugarituz joan

hurbildu ginen Altzara,
nahiz ta gutarrak erderaz jardun
bertan bizi zen euskara,
beso zabalik hartu gintuzten,
baina paradoxa, hara,
euren gisara, beso zabalik
bertaratu ote gara?

Urteetako bidai honetan
bakoitzak bere egia,
bertan uztartu eginagatik
malkoa ta izerdia,
Altzak bihotzik ez duela ta
entzun arren kantaria,
altzak bihotza handia dauka
akaso handiegia.

AMAMARI BIHOTZ MINEZ

Egilea: Iban Orbegozo Iturralde
Doinua: Maitasuna da bizi izateko

Gaurkoan zuri hasi behar dut
amama Luixa kantuan.
Orain dela gutxi bait zera
sartu betiko zeruan.
Kandela baten pare jun zinan
itzaltzen azken orduan
irrifarra zuk ahuan
ta familia onduan
etsipena guk barruan
argazki bati begira nago
ta mila gauza buruan
presente daukat nola hilerrian
sartu zintudan nitxuan (bis)

Ospitalean zuri eskutik
helduta hortxe nengoen
zure indarrak eta kemenak
harrituta utzi ninduen
umoreari azken unean
nola eutsi zenioen
nire eredua zinen
beti besteei laguntzen
sekula etzinen nekatzen
bizitza osoa beti lanean
lau jenerazio hazten
zuri eskerrak ikasi dugu
denok aurrera egiten (bis)

Txikitatikan zaindu gaituzu
irrifar goxo batekin
zure muxuak ta besarkadak
burutikan kendu ezin
zure arima gaztea zan da
ibiltzen zinan gurekin
hain gustora bilobekin
ta nola ez birlobekin
inguruko gazteekin
harrotasuna agertzen zendun
daukazun familiakin
ta familia oso harro dago
izan duen amamakin (bis)

Attitte joan zen orain dela
hogeita zazpi bat urte
gizon handia baina apala

bazeukan hainbat bertute.
Osaba ere hil zitzaigula
hamasei pasata daude
goiko zeruan hain aske
gure zorionan eske
eternitatearen truke
orain biek in batuko zara
pozik egon behar zenduke
baina zu lasai urte batzuta
berriz elkartu gaitzek (bis)

Zu oroitzean nire ametsean
estutzen zaizkit barrenak
nire barnean loratuz doaz
umetako oroitzapenak
zeu birlobekin jolas batean
irudirik politenak
goxatuaz ume denak
irrifarre nabarmenak
poztasunik hoberenak
hauetxek dira zure hutsunea
bete beharko dutenak
zuk erakutsita bezalaxe
haziko ditugu denak (bis)

Muxu handi bat ta mila esker
ematea ez da nahiko
gure barnean biziko zera
aurrerantzean betiko
zutaz ikasi izan dudana
ez zait sekula ahaztuko
hartu behar dut aintzako
ta gogoratu beharko
ondoan zaitudalako
gero elkartzeko esperantza hori
nik jo behar dut ontzako
nire maitasun guztiarekin
Amama eskerrik asko (bis)

LIBURU ASKO EROSTEN DITUT

Egilea: Xanti Zapirain Elizalde

Doinua: Norteko trenbideari

Liburu asko erosten ditut
inoiz ez irakurtzeko
literatura ona delako
etxea ondo jazteko.
Intelektuala nahi nuke izan
bestela zerbait antzeko
kultura oso ona omen da
gizendu gabe jateko

Jangelan ditut mila liburu
asko maite dut kultura
oraindik ez dut bat irakurri
ezin da sartu barrura.
Gizarte hontan hobe ba
kultura baino itxura
ergel mordua pozik bizi da
ezjakinaren kontura.

Beti erosten ditut gainera
liburu garestienak
nahiz eta asko ez begiratu
azkar ikusten direnak.
Bostehun bat horri dauzkaten hoiak
izaten dira onenak
oheko hanka hausten denean
karga eusten, dakitenak.

Lagunak sarri etortzen dira
etxera bisitatzen
Hor izaten dut liburu denak
erakusteko aukera.
Debate onak maite ditugu
gau erditikan aurrera
Jakintsu denak egin dugu
taberna baten karrera.

Lagun artean ederrena da
isilik atera nota
Gurea balitz, modu berberan
esaldi onena bota,
Nahiz eta hanka askotan sartu
ez du batere inporta
berdin bait zaigu filosofia
edo ezkurren konpota.

Asko maite dut sukalde zaharra
baina piztu gabe su
itxura ona da gizartean
gezurra ez da antzua.
Liburu batzuk erakutsita
egin naiz zoriontsua
sos gutxirekin izan daiteke
hartaburu ta maisua.